



**AZALPEN-OHARRA, PROIEKTU
ESTRATEGIKOEN ETA INDUSTRIA-
ADMINISTRAZIOAREN ZUZENDARITZARENA,
EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO
JASANGARRITASUN ENERGETIKOARI
BURUZKO AZAROAREN 10EKO 254/2020
DEKRETUAREN XEDAPEN IRAGANKORREAN
JASOTAKO, COVID-19K ERAGINDAKO
ALARMA-EGOERAREN ONDORIOZ, EPEAK
LUZATZEARI BURUZKOA**

**NOTA ACLARATORIA DE LA DIRECCIÓN DE
PROYECTOS ESTRATÉGICOS Y ADMINISTRACIÓN
INDUSTRIAL RELATIVA A LA PROLONGACIÓN DE
PLAZOS RECOGIDA EN LA DISPOSICIÓN
TRANSITORIA DEL DECRETO 254/2020, DE 10 DE
NOVIEMBRE, SOBRE SOSTENIBILIDAD
ENERGÉTICA DE LA COMUNIDAD
AUTÓNOMA VASCA, DERIVADA DEL ESTADO DE
ALARMA PROVOCADO POR EL COVID 19**

Azalpen-ohar honen helburua, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko azaroaren 10eko 254/2020 Dekretuaren (hemendik aurrera DEKRETUA) Xedapen Iragankorrean jasotako epeak luzatzeari buruzko zalantzak argitzea eta horiei erantzuna ematea da.

El objeto de la presente nota es aclarar y dar respuesta a las dudas relativas a la prolongación de los plazos recogida en la Disposición Transitoria, del Decreto 254/2020, de 10 de noviembre, sobre Sostenibilidad Energética de la Comunidad Autónoma Vasca (en adelante DECRETO).

Haipatutako xedapen iragankorrek ondokoa jasotzen du, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legean eta DEKRETUAN ezarritako epeak, baldin eta COVID-19k eragindako alarma-egoeraren hasiera-eta amaiera-datak epe horien barruan jasota badaude, aipatutako egoeraren iraupen-epe berean luzatuko direla.

La citada disposición transitoria recoge que los plazos establecidos tanto en la Ley 4/2019, de 21 de febrero, de Sostenibilidad Energética de la Comunidad Autónoma Vasca, como en el DECRETO, dentro de los cuales queden recogidas las fechas de inicio y finalización del estado de alarma provocado por el COVID 19, quedarán prolongados en plazo igual a la duración del citado estado.

Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez, alarma-egoera deklaratu zen, COVID-19 koronabirusak eragindako osasun-larrialdiko egoerari aurre egiteko. **Alarma-egoera 2020ko martxoaren 14an hasi zen.** Ondoren, ekainaren 5eko 555/2020 Errege Dekretuaren bidez, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak adierazitako alarma-egoera **2020ko ekainaren 21eko 00:00ak arte luzatu zen.**

Mediante Real Decreto 463/2020, de 14 de marzo, se declaró el estado de alarma con el fin de afrontar la situación de emergencia sanitaria provocada por el coronavirus COVID-19. **El estado de alarma se inició el 14 de marzo de 2020.** Posteriormente, mediante el Real Decreto 555/2020, de 5 de junio, se prorrogó el estado de alarma declarado por el Real Decreto 463/2020, de 14 de marzo, **hasta las 00:00 horas del 21 de junio de 2020.**

Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuan jasotako pertsonen zirkulazio-askatasunaren mugapen-mailaren ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legeak behartutako

El grado de limitación en la libertad de circulación de las personas recogida en el Real Decreto 463/2020, de 14 de marzo, ha podido provocar que los sujetos obligados por la Ley 4/2019, de 21 de febrero, de Sostenibilidad Energética de la Comunidad Autónoma Vasca se



subjektuek Lege horretan eta DEKRETUAN jasotako epeak ezin betetzea eragin dezakete.

encuentren en la situación de no poder dar cumplimiento a los plazos recogidos tanto en la citada Ley, como en el DECRETO.

Horregatik guztiagatik, argitu behar da luzatu daitezkeen epeak, DEKRETUaren Xedapen Iragankorrear jasotakoaren arabera, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez adierazitako alarma-egoeraren hasiera- eta amaieradatak jasotzen dituztenak direla, hau da, **2020ko martxoaren 14tik 2020ko ekainaren 21eko 00:00etara bitartean igarotako epea.**

Por todo ello, debe entenderse que los plazos prolongables, según lo recogido en la Disposición Transitoria del DECRETO, son aquellos dentro de los cuales queden recogidas las fechas de inicio y finalización del estado de alarma declarado mediante Real Decreto 463/2020, de 14 de marzo, es decir, **el plazo transcurrido entre el 14 de marzo de 2020 y las 00:00 horas del 21 de junio de 2020.**

Epe horiek 100 egun naturaleko epean luzatuko dira.

Los citados plazos se prolongarán por un periodo de 100 días naturales.

SIN./FDO.: ZIGOR URKIAGA URKIZA

**PROIEKTU ESTRATEGIKOEN ETA INDUSTRIA-ADMINISTRAZIOAREN ZUZENDARIA
DIRECTOR DE PROYECTOS ESTRATÉGICOS Y ADMINISTRACIÓN INDUSTRIAL**